

2004KO URRIAREN 28KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko irailaren hogeita zortzi, arratsaldeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba.

Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Álvarez Novoa Zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2004ko urriaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- FUTBOL ZELAIKO BIRMOLDAKETA ETA ALDAGELEN 3. ZERTIFIKAZIOAK.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak lan hauen hirugarren zertifikazioak luzatu ditu. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lanen hirugarren zertifikazioa 81.766,92 eurotako da eta Aldagela proiektuaren hirugarren zertifikazioa 18.319,91 eurotako.

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenak irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honen xedea Udaletxeko sotoan gaztelekua egokitu eta ekipatzea dela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	150.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		150.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako gerakina	150.000,00 €
GUZTIRA		150.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- AUTO-TAXI GARRAIO ZERBITZUETARAKO HIRI TARIFAK ETA ARAUBIDE BEREZIKO EREMU BAT EZARTZEKO LANKIDETZA AKORDIOA ONARTZEA.-
Auto-taxi garraio zerbitzuetaarako hiri-tarifak.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2005 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira, gerora Goierri Bailara hartuko duen Berariazko Erregimen Gunea sortzea delako helburua.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren eta Hazienda batzordearen proposamenaren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2005 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA					
1 TARIFA (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA (gauezko eta jaiegunetako)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
2,6712	0,8374	16,006	2,6712	1,3356	25,1432

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

Auto-taxi garraio zerbitzuetarako araubide bereziko eremu bat ezartzea.-

Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo autoz garraiatzeko zerbitzua arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legea garatuz urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak bere arautegia onartu zuen eta arautegi honek hainbat herri hartuko dituen araubide bereziko eremuen sorrera aurrikusten du.

Aurrikuspen horren ildotik Goierriko udaletan autotaxien garraio zerbitzua emateko araubide bereziko eremua sortu nahi da eta horretarako Goierriko udalak eta Goierriko Taxi Elkartearen arteko lankidetza hitzarmena planteatzen da.

Hori horrela, Udal Osoko Bilkurak, gaia azertu ondoren eta Hazienda Batzordearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin honako erabaki hauek hartzen ditu:

Guzti honen aurrean eta Hazienda Batzordearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Goierriko auto-taxi garraio zerbitzuetarako araubide bereziko eremu bat sortzeari onarpena ematea eta hau bideratzeko eman beharreko gainontzeko urratsak ematea.

- 2.- Aurreko puntuan aipatzen den araubide bereziko eremu hori ezartzera bideratutako lankidetza hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea.
- 3.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean xede horretara bideratutako lankidetza hitzarmena izenpetzeko.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.